



*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**5**

**Makina matxuratuta!  
Goazen mekanikariarengana!**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 2. maila)

# BOSGARREN UNITATE DIDAKTIKOA “MAKINA MATXURATUTA! GOAZEN MEKANIKARIARENGANA!”

## Sekuentzia tematikoa

Neguko festak: inauteriak.

Lanbideak.

Lanbideek eskainitako zerbitzu eta produktuak.

Produktuen ekoizpen prozesua.

Produktuak aztertzen.

Produktuen erabilpenaren ostean sortutako hondakinak.

Hondakinak birziklatzen.

Hondakinak artelan bihurtzen.

Gaia: Produktuen ibilbide ziklikoa.

Lehengaiak bildu-Eraldatu-Garraiatu-Saldu-Kontsumitu-Birziklatu.

Oharrak:

-Unitatean zehar, Urdintxok bere globoetan esandakoei erreparatzea komeni da, bere azalpenek gaiari lotura eta zentzua emango baitiote.

-Gaia lantzen ari garen bitartean, ulermena ziurtatzeko, komenigarria izan daiteke, prozesuaren zein fase ikusi ditugun eta zein lantzen ari garen momentu horretan arbelean idaztea.

-Gai honetan hainbat dira silaba “trabatuak” dituzten eta behin eta berriro agertuko diren hitzak, besteak beste: produktu, birziklapena, proiektua, ziklikoa, fabrika, xeblea... Aipamen bat merezi dute, horregatik agertu ahala arretaz landuko ditugu, ez era sistematikoan, bai ordea, ezagutzen ditugunak aipatuz, idatziz, behatuz, hipotesiak eginez nola eratzen diren ondorioztatuz (“r” eta “l” fonemak tartekatuz silaban) eta zailtasunik gabe erabiltzeko behar dituztenean.

Proiektua: Hondakinekin egindako artelanak. Bukaeran aipatzen bada ere, lehenago has zaitezke lanean, bestela gaia bukatu ondoren luze jo baitezake.

Irteerak: Produktu baten ekoizpena ikustera joan, inguruan dugun fabrika, lantegira... Gogoratu, agian alde zurreratik, eguna eta ordua eskatu beharra izan dezakezuela bisitatuko duzuen toki horretara irteera egiteko.

Ipuin literarioa: “Mister Daffodil eta bere denda”. Asun Balzola. Elkar argitaletxea, Lamia saila.

## ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Haserrea. Joko kooperatiboak : Aulkiena eta txiklearena. Ogibide guztiek eskaintzen diote zerbait gizarteari. Guztiok dugu lana egiteko eskubidea.
Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza	Bideoa: Hondakinak. Birziklaia. Irtenbide posibleak. Gehiegizko kontsumoa. Herri pobreak. Ekoauditoria. Hondakinekin egindako artelana.
Kontsumorako Hezkuntza	Bideoa: Hondakinak. Birziklaia. Gehiegizko kontsumoa. Herri pobreak.

### **EUSKAL DIMENTSIOA**

Hizkuntza eta literatura	Ipuina: On Josepe Inventatore Konpontzaile dotore. M. Murua Olerkia: Euskal Herriko neguko festak. J. Ormazabal Igarkizunak: J. Ormazabal, Txiliku, J.K. Igerabide Bertsoa: M. Mendizabal
Ingurumena	Euskal Herriko neguko festak.
Musika eta gorputz motrizitatea	Abestiak: I. Urbietta; A. Egaña, Tapia/Amuriza

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerak, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 2

IKASLEAREN LIBURUA - 5. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	123	
1		Azalari behatzea	3	123	
2		Komikia	4-5	124-125	
4		Olerkia	6	126	
10		Mozorro-lanbideak	8	128	
14		Musika ikasten ari gara	9	129	
14		<i>Lanbideak</i>	9	129	
15		<i>Notak gora eta behera</i>	9	129	Musikako lan-koademoa, 31. or.
17		<i>Zinemara</i>	9	129	Musikako lan-koademoa, 33. or.
21		<i>Egunero</i>	9	129	Musikako lan-koademoa, 37. or.
22		<i>Tipi-tipi-taup</i>	9	129	
23		<i>Txori txarrak</i>	9	129	
26		Etxekoan lanbideak	10-11	130-131	

27		Bertsozale elkartea	11	131	Lan-koadernoa, 6. or.
28		Lanbide ezberdinek eskaintzen digutena aztertzen	12-13	132-133	
30		Entzunaldia: <i>Sevillako bizargina</i>	13	133	
30		Gioacchino Rossiniren biografia • Euskaraz • Gaztekeraz	13	133	
30		<i>Sevillako bizargina 1</i>	13	133	
30		<i>Sevillako bizargina 2</i>	13	133	
30		<i>Sevillako bizargina 3</i>	13	133	
31		When I grown up...	14	134	
32		<i>Alferraren astea</i>	14	134	
33		Zu ere langile fina!	15	135	
35		Gaitetak ekoizteko prozesua	16-17	136-137	
39		Ikusitako produktuaren prozesua idazten	18-19	138-139	
40		Produktuak aztertzen	20-21	140-141	
44		Artelana: Andy Warhol	22	142	
44		Andy Warhol	22	142	
45		Hondakinak	23	143	
46		Birziklapena	23	143	

47		Bideoa aitzakia	24	144	
49		<i>Bueltaka-bueltaka birziklatuz</i>	24	144	
50		Zer da birziklatzea?	25	145	
54		Egia-gezurra	26	146	
56		Ekoikuskatzea	27	147	
60		Proiektua gauzatzen: Hondakinekin egindako artelana	28-29	148-149	
62		Ipuina aitzakia	30	150	
64		Komikia	31	151	
66		Sintesia	32	152	

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Gaiari hasiera emateko, liburuaren azalaren behaketa eta elkarrizketa bultzatuko ditugu, aurreikuspen-estrategiak landu eta haurrak motibatzeke asmoz. Gogoratu Tough-en hizkuntz-funtzio batzuk martxan jar ditzakezuela egoera eta erantzunen arabera.

- *Azalaren deskribapena. Zer ikusten dugu? Elementuak, pertsonaiak...*
- *Idatzita dagoena irakurri. Zer jartzen du?*
- *Izenburuari eta hitzen esanahiari erreparatu. Matxura hitzak zer esan nahi du?*
- *Zer adierazten digu izenburuak? Arazoa. Nola egin aurre?*
- *Zer uste duzue gertatuko dela orain?*
- *Nortzuk uste dute ez dutela bidaiarik egingo oraingo honetan?*
- *Orduan, zertan arituko dira bien bitartean?*
- *Azala ikusiaz, zer nolako gaia jorratuko dugula uste duzue?*
- ...

## 2. Komikia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4 eta 5 or.*

Irakurketari ekin aurretik haurrak girotu eta hizkuntza funtzio batzuk martxan jarriko ditugu:

- *Aurreko komikia gogora ekarri eta oraingo komikiarekin duen lotura bilatzen saiatuko gara. Gogoratzen al duzue nola bukatu zen aurreko komikia?*
- *Ondoren dagokigun komikiaren izenburuari erreparatuko diogu: Zer adierazi nahi izango du "batek daki" horrekin? Nori edo zeri egiten ari dira erreferentzia? Noiz erabiltzen da esamolde hori? Erabiltzen al duzue? Jarriko al ditugu adibideak?*
- ...

Haurrei, banaka, komikia irakurtzeko tartetxo bat eman ondoren, komikiaren haria erabiliz, ekintzak iragartzen, proiektatzen eta imajinatzen saiatuko gara. Honez gain, haserreaz, jokaera/jarrera baikor eta ezkorraz, eta onomatopeiez mintzatuko gara.

- *Nola uste duzue sentitzen dela Maddalen? Zergatik?*
- *Nola dakizue? Zer izan da horren adierazle? Pasatuko ote zaio haserre?*
- *Zuek haserretzen al zarete? Zer egiten duzue haserre pasatzeko?*
- *Urdintxok zer adierazi nahi du lehenengo binetan esandakoarekin?*

Onomatopeien inguruan ere hitz egiteko aukera ederra duzue hemen.

- *Zer dira? Nola sortzen dira? Ezagutzen ditugunak aipatu. Beste batzuk iragarri... Hitzaren izen ponpoxoaz ere hitz egin dezakezue.*
- *Zer gertatu da makina barruan? Nola dakizue ez bada ikusten gertatutakoa?*
- *Zergatik dio Ferminek berriro dagoela izarretan, ez baldin bada hala?*
- *Zergatik deitzen dio Ferminek Maddaleni "ama"?*
- *Ferminek makina zaborretara botatzeko moduan dagoela dio. Zuk zer egiten duzu zerbait apurtzen zaizunean?*



- Zenbat denbora behar izango du mekanikariak makina konpontzeko? Bidaiatuko ote dute?
- Maddalenek dio egoera txarrek ere alde on bat izaten dutela beti. Zuk nola jokutzen duzu egoera txar baten aurrean? Aipatu hainbat jokabide eta aukeratu egokiena.
- Zer adierazi nahi du Ferminen, puzkerrak gorputzarentzat jai giroa direla esaten duenean?
- ...

Elkarrizketa bukatu ondoren, taldeko irakurketa egin dezakegu. Hasteko, paperen banaketa egingo dugu, denon artean adostuz zein ikaslek irakurriko duen pertsonaia bakoitzari dagokion testua. Komenigarria litzateke ikasleei birgogoratzea, arreta berezia jarri beharko diotela komiki-hizkuntzaren baliabideei, ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain doinuaren garrantzia azpimarratuz.

### 3. Maddalen haserre dago. Baita gu ere

*Lan egiteko era: Talde handian*

Denok haserretzen gara batzuetan. Neska-mutilek, beraz, bizi izan dute hori. Eman dezagun bada, haserre gaudela. Bakoitzak haserretzeko arrazoi bat pentsatu behar du Adibidez jostailu bat puskatu zaiolako, bere lagunak burla egin diolako etab.

Ondoren denok lurrean eseriko gara eta irakasleak haur bakoitzari galdetuko dio:

- Irakaslea: Miren, haserre al zaude?
- Ikaslea: Bai, oso haserre.
- Irakaslea: (Beste lagunei begira) Zergatik dago Miren haserre?
- Taldea: Batek daki!
- Irakaslea: Eh Miren! Zergatik zaude haserre?
- Ikaslea: (Haserre bizian arrazoia emango du.)

Oso egoera aproposa dugu hau esaldi kausalak lantzeko: *Zergatik? ...-lako; ...bainago...*

### 4. Olerkia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.*

Joxan Ormazabalaren olerki hau neguko festei buruzkoa da. Ikasleei olerkia irakurtzeko esango diegu, goza dezaten. Ondoren, bigarren irakurketa bat egitea proposatuko diegu, helburua argi adieraziz: “Ferminen eta Maddalenen izandako elkarrizketan argi utzi digute Santa Ageda eta San Blas festez gain badirela beste hainbat, beraz, irakurri ahala, azpimarra itzazue gainontzekoak”.

Lan hau egin ondoren, denon artean, agertu diren festen izenak arbelean jarri eta hauei buruz dakiguna kontatuko dugu. Nahi izanez gero, sasoi honetakoak diren kanta, olerki eta abar birpasatu ditzakegu.

Euskal Herrian, ohitura zaharrei jarraituz, negu hotzean, ospatzen diren festak aipatzea eta berriro gogoratzea nahi dugu.

## **5. Neguko festa baten inguruan.**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koadernoan, 4. or.*

Denon artean gure ikastetxean ospatzen den neguko festa bati buruzko informazioa biltzen hasiko gara (nagusiak dauden geletara joan eta galdetuz, etxean galdetuz, liburuetan begiratuz...). Behin informazioa eskuratuta, arbelean idatziko ditugu lan-koadernoko eskeman eskatzen zaizkigun datuak, baina datu bezala.

Ondoren, binaka, informazio testu txiki bat berridatziko dute lan-koadernoan.

Jardueraren helburua, festaren ospakizunaren zergatiaz jabetzea eta datu zehatz batzuk oinarri izanda, informazio testutxo bat ekoizteko gaitasuna garatzen joatea da.

Ikastetxean neguko festa bat baino gehiago ospatuz gero, guztiei buruzko informazio testuak osatu eta kartulina handietan idatziz, ikastetxean zehar jartzeko aukera ere baduzue.

## **6. Mozorroaren marrazkia**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua 7. or.*

Jarduera honetan, ikasleek mozorroaren adierazpen grafikoa egiteaz gain, aukeraketaren zergatia ere, idatziz adierazi beharko dute. Adierazpen mota biei dagokienez, xehetasunak eska iezaizkiezue.

## **7. Mozorroa pertsonaia bihurtu**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Mozorroa benetako pertsonaia bihurtzeko, hitz egiteko, ibiltzeko eta izateko era propioa eman behar zaizkiola konturatu behar dira haurrak. Neska-mutilek, banan-banan, mozorroaren marrazkia pertsonaia bihurtuta aurkeztu behar dute, gidoi txiki bat osatuz.

Nire mozorro-pertsonaia:

- *Nola du izena?*
- *Non bizi da?*
- *Zer gustatzen zaio?*
- *Zer gorrotatzen du?*
- *Zer egingo du bihar goizean?*
- ...

## **8. Mozorro-pertsonaia istorio bihurtu**

*Lan egiteko era: Talde txikian*

Aurreko jolasa egin ondoren, bi edo hiru pertsonaia elkartu daitezke eta euren artean dagoen erlazioa aurkituz istorio bat asma dezakete.

Adibidez:

- Superman
- Printzesa
- Hartza.

“Printzesa hartzaren laguna da. Hartza gaixorik dago eta printzesak gauza asko egiten ditu hartza alaitzeko (txisteak kontatu, loreak oparitu, dantza egin...). Telefonoz Supermani deitu ondoren, hau hegaz dator eta zerbait (???) egiten du hartza sendatzeko. Ondoren, asmatutako istorioak taldeka antzez ditzakete.

## **9. Ikastetxeko inauterietako egitaraua**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koadernoan, 5. or.*

Ikasleei inauterietako egitaraua zein den azaldu ondoren, arbelean kopia. Ekintzak eta ordutegiak zehaztuz ikasleek egitaraua lan-koadernoan kopia dezatela.

## **10. Mozorro-lanbideak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8. or.*

Inauterietako mozorroek zubi lana egingo dute lanbideen gaia lantzeko.

Ikasleek, bakarka, irudi bakoitzak adierazten duen lanbidea dagokion definizioarekin lotu beharko dute. Ondoren, talde txikietan, nahiz talde handian, ahoz nahiz gorputz adierazpenez, lanbideak asmatzera jolastuko dute. Jolas hau bi erataratu daitezke:

- Aldez aurretik erabaki batzuk hartu ondoren (adierazpen mota tartekatua, inposatua ala libre izango den...) modu librean jolastuz, talde txikietan.
- Kolore jakin bateko kartulina batekin karten tamainako fitxak egingo ditugu. Bertan ezagutzen ditugun lanbide guztien izenak jarri ondoren, multzo bat egingo dugu. Beste kolore bateko kartulina batekin ere, karten tamainako fitxak egin, eta batzuetan, "ahozko adierazpena" eta besteetan "gorputz adierazpena" idatziko dugu. Bi koloreko karta multzoa dugu beraz. Talde handian, txotx egin ondoren, tokatu zaionak multzo bakoitzetik karta bat hartuko du. Honela lanbide jakin bat eta adierazpen modu jakin bat emango zaizkio. Tokatutakoa adierazi ondoren, lanbidea asmatzen duenak adierazi beharko du hurrengo lanbidea.

Jardueraren helburua, ulermen-estrategiak landu eta, ahozko adierazpena eta gorputz-adierazpena garatzea da.

## **11. Igarkizunak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 61 or.*

Joxantonio Ormazabalaren hiru igarkizun hauek hiru lanbideri egiten diete erreferentzia (aizkolaria, arotza eta okina). Ikasleek banaka igarkizunak irakurri eta asmatu egin beharko dituzte. Ondoren, talde txikietan, elkarriketaren bidez, erantzunak komunean jarri eta erantzunak alderatzeaz gain, argudioak elkartrukatu dituzte.

Jardueraren helburua testua ulertzea, informazioa aurre-ezagutzekin lotzea eta ahozko adierazpena garatzea da.

## **12. Aulkiak. Joko kooperatiboa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Aurreko olerkiko arotzak, egunero egiten omen ditu bi mahai eta bi aulki, horri esker ditugu guk hainbeste mahai eta aulki.

Ikasle kopurua baino aulki bat gutxiagoz osaturiko biribil bat egingo dugu. Musika entzuten denean, honen erritmoa jarraituz, ikasleak biraka hasiko dira aulkien inguruan. Musika gelditzean, aulkietan jezarri beharko dute. Aulki barik geratu den ikaslea, ikusirik beste aulki guztiak okupaturik daudela, beste ikasle baten gainean jezarriko da. Beste jokalarien gainean eseritako ikasleari, tradiziozko jokoan egiten ez zen bezala, ez baitugu inor kanporatuko, bereizgarri bat jarriko diogu (aurpegia marraztu, gometxa bat jarri sudurrean...). Marraztuak izatearen gozamen hutsagatik askotan eurak dira beste baten gainean esertzea erabakitzen dutenak, modu honetan konpetitibitateak uxatuz. Musika jartzen den aldi bakoitzean aulki bat edo bi kenduko ditugu. Azkenean ikasle guztiak gelditzen den aulki bakarrean ilaran jezartzen saiatuko dira eta gozamina ikaragarria izango da.

Ikasle kopuru handia izanez gero, komenigarria litzateke gelako kideak bi taldetan banatzea eta talde biak momentu berean jolastea.

Bukatzen dugunean, beti bezala esperientziari buruzko elkarrizketa bultzatuko dugu.

## **13. Hik lan eta nik jai**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: CDa*

Beti bezala, abestia entzun eta gozatuko dugu. Ondoren, ikasleei berriro entzungo dugula adieraziz, letrari erreparatzeko esango diegu. Gero elkarrizketa bultzatuko dugu:

- *Ulertu al duzue entzundakoa, dena ez bada hitzen bat?*
- *Gaia: Zeri buruzkoa da? Zer kontatzen digute?*
- *Mezua: Zein da abesti honen mezua?*
- *Hizkuntzari buruzko gogoetak: Zein hizkuntzetan dago? Guk hitz egiten dugun bezala hitz egiten dute? Zergatik?*

Euskara Batua, euskalki eta aldaeren inguruan hizketalditxo bat izan dezakezue, eta baita hika (sexu bereizketa...) eta zukaren inguruan ere.

## **14. Musika ikasten ari gara**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua 9.or./CDa/CD-ROMa*

Abestia aitzakia, hurrei pentsatzeko denbora pixka bat eman ondoren, bakoitzak handia izatean zer izan nahi duen adieraz dezala. Horrekin batera lanbide bat edo bestea (edo zalantza badute bi edo hiru) aukeratzeko arrazoiak zeintzuk diren emateko ere eskatuko diegu. Argudiatzerakoan, kausalak era egokian osatzeko eredia eskainiko diegu ( -lako, bait...).

## **Musikako lan koadernoko proposamenak**

### **15. Notak gora eta behera**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 31 .or., 5.1. fitxa/CDa, jarduerak*

Bost notaz osaturiko sei musika zati grabatu ditugu. Marra lodi batez adierazi behar da musika bakoitzaren norabidea. Abiapuntu bezala Sol nota aukeratu dugu, pentagramako alkatea.

Irakasleak zenbait froga egin ditzake ariketa hau burutu aurretik. Adibidez ahotsa erabiliz eta besoaren mugimenduaz noten norabidea markatuz ikasleek argi ikus dezaten notek hainbat bide har ditzaketela.

Azken urratsa, CDko ariketa, bakarka egitea izango da.

### **16. Hausnarketa: kolpatu ala putz egin?**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 32 .orr., 5.2. fitxa*

Ez da CDrik behar ariketa hau burutzeko. Marrazkiak aztertu, tresna bakoitza irudikatu eta ahal bada erantzun zuzena eman. Zer egin behar da tresna bakoitzaren soinua lortzeko, kolpatu ala putz egin?

### **17. Zinemara**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 33 .or., 5.3. fitxa/CDa, jarduerak*

Sei nota desberdinez osaturiko melodia da. Ezinbestekoa da, kantuaren letrari erreparatuz, hiru zelula erritmikoak erabiltzea. Nota berdinak erabiliz, beste erritmo bateko kantatxoak proposatzea komenigarria da. Horrela notak irakurtzeko ohitura hartuko dute ikasleek.

### **18. Buruhaustea zineman**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 34 .or., 5.4. fitxa/CDa, jarduerak*

Askotan entzun izan ohi da, musikak, arte bat izanik, zer ikusi handia duela matematikarekin. Horra ba, buruketa bat!

Soluzioa logikoa da. Bi hartza txikiak (kortxea pare) aulki batean eseriko dira. Ama, ez da mugituko, ongi zegoen. Eta azkenik, hartza aitak (zuriak) txikiek utzitako aulkia eta berea elkartu eta bapo eseriko da. Zinematik atera ostean pizza bat jatera joan ziren. Aitak zerbitzariari lau pizza eskatu zizkion. Eta jakina, hartza txikiek erdibana jan zuten bat. Amak berea jan zuen. Eta aita tripontziak, horrela dago dagoen bezala, berea bukatu ondoren hartz txikiek utzitakoa gustu handiz irentsi zuen. Orain ere argi ikusi da noten balioa zein den. Aitak bi, amak bat eta bi txikien artean, bat.

## 19. Diktaketa erritmikoa

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 35 .or., 5.5. fitxa/CDa, jarduerak*

Lan koaderno honetan bi diktaketa erritmiko bakarrik agertzen diren arren interesgarri deritzogu gehiago egiteari. Modu askotara egin daitezke.

Zelula bakoitza musika tresna batez joaz esaterako. Adibidez, kortxeak kaxa txinatarrak, beltzak panderoak eta zuriak triangeluak joz. Ikasleen aurrean egin daiteke lehenik eta ezkutuan ondoren. Mimika erabiltzea ere lagungarria izan daiteke. Hau da, kortxeak egiterakoan makurtu hartz txikien mugimendua imitatuz. Beltzak normaltasunez jo eta zuriak egiterakoan aurpegia eta gorputza puztu mugimendu geldoa imitatuz. Azken urratsa, bi konpasez osaturiko eskema hauek soinu iturri bakar batez jotzea izango da (txaloz, klabeekin lagunduz, danborra erabiliz...). Eskema bakoitza bi edo hiru aldiz errepikatu ondoren oraindik ikasleren bat edo beste galdu samar badago, ahotsaz lagundu genezake erritmoa “di-lin”, “dan” edota “doon” esanaz, kortxeak, beltzak edota zuriak diren argiago espresatu asmoz. Baina kontuan izan poliki-poliki ahotsaren laguntzarik gabe egiten ikasi behar dutela. Horregatik da komenigarria, nahiz eta lan-koadernoan ez agertu, horrelako ariketak tarteka-marteka egitea.

## 20. Eskala

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 36 .or., 5.6. fitxa/CDa, jarduerak*

Aurreko batean bezala (3.7. fitxa), ariketa hau egin ahal izateko eskala garbi eduki behar dugu, bestela, jai daukagu. Bada ezpada ere jolas txiki bat antolatuko dugu.

Irakasleak, ordena mantentzen duten hiru zenbaki esango ditu eta hurrek ondorengoa zein den adierazi beharko dute. Adibidez, “ 7, 8, 9,” ondorengoa, eta ikasleek esango duten zenbakia “10” da. Banan-banan ere galde genezake.

Antzeko jolasa, zenbakien seriea atzekoz aurrera emanaz ere egin daiteke.

Zenbakiekin jolastea erraza izan da. Orain notekin frogatuko dugu. “Mi, Fa, Sol”

Zein da jarraian datorrena? Lan koadernoan izango da helmuga.

## 21. Egunero

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 37 .or., 5.7. fitxa/CDa, jarduerak*

Aurrekoak baino ariketa bihurriagoa dugu honako hau. Sei nota desberdin eta gainera kortxea ugari.

Nota berdina erabiliz, hainbat erritmotako kantatxoak proposatzea komenigarria da. Horrela notak irakurtzeko ohitura hartuko dute ikasleek.

## 22. Tipi-tipi-taup

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, jarduerak*

Garrantzitsua da erritmoa gorputzaz bizitzea, eta abesti honek horixe du helburu.; gorputzez kortxeak, beltzak eta zuriak bizi eta ongi barneratzea.

*Tipi, tipi, taup, taup, punba.*

*Tipi, tipi, taup, taup, punba.*

*Zamaltzaina non da, non da?*

*Zintzilipurdika joan da.*

*Zamaltzaina non da, non da?*

*Zintzilipurdika joan da.*

Lurrean 4 uztai jarriko ditugu bat bestearen segidan. Jarraian, bi lagun artean soka bat eutsiko dute, ongi tiratuta bi muturretatik eta belaun-pareko altueran. Segidan, ahal badugu, koltxoneta bat jarriko dugu. Abestiaren erritmoa jarraituz, lau pausotan lau uztaietatik pasako gara (lau kortxea). Gero soka gainetik pasako gara (bi beltz). Azkenik, koltxoneta gainean itzulipurdi bat egingo dugu (bi zuri). Koltxonetarik ez badugu, edo ikasleek ez badute itzulipurdirik egin nahi, soka pasa ondoren zutik bira lasai bat eman dezakete, beti ere bi zuriren denbora erabiliz.

## 23. Txori txarrak

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, jarduerak*

Musika-tresna garrantzitsua dugu ahotsa, eta gure hizkuntzak hainbat fonema berezi ditu. Horietako bat TX da. Fonema bakoitzak bere soinu berezia du, eta bat galtzen badugu, orkestra batean musika-tresna bat isilaraztea bezala da.

Abesti hau TX pila batez osatutako ahokorapiloa dugu. Ea nola ateratzen zaizuen!

*Txori txarrak txinta txarra,  
txinta txarra, txitxirripatxarra.*

*Txantxangorriaren txintak,  
txintxan pintxan,  
txintxilin pitxinka.*

*Txori txarrak txinta txarra,  
txinta txarra, txitxirripatxarra.*

*Txantxangorriaren txintak,  
txintxan pintxan,  
txintxilin pitxinka.*

*Txaranbela, txermen pila,  
txitxilitxongo, txikolomitxingo,  
txutxumutxu, txutxuputxu,  
txa, txe, txi, txo, txu.*

*Txori txarrak txinta txarra,  
txinta txarra, txitxirripatxarra.*

*Txantxangorriaren txintak,  
txintxan pintxan,  
txintxilin pitxinka.*

## **24. Txistek**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 62.or.*

Ikasleek, bakarka, lanbideen inguruko hiru txistek irakurriko dituzte. Gero, talde handian, txisteen inguruko hausnarketatxo bat egin dezakegu, zer diren definitzen saiatuz, erabilpena zein den (barre eragiteko esaera edo kontakizuna) eta ona izateko zeintzuk ezaugarri behar dituen (umorea, grazia, ironia...). Erabakitakoa arbelean idatzi eta gure hiztegian apunta dezakegu.

## **25. Txistek dramatizatu**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Ondoren, hau guztia praktikara eraman dezakegu “txisteen unea” saioari tartea eginez. Txistek beti dira aitzakia ona dramatizazioa egiteko. Testuak oso motzak dira eta pertsonaiak gutxi, horregatik neska-mutilak saiatu behar dira txiste horiek ondo adierazten, ondo ahoskatu behar dute eta esaldi bakoitzari bere zentzua eman behar diote. Ez du balio edozein modutan egiteak. Ariketa hau ondo egin dezaketenez saitzeko eskatu.

## **26. Etxekoen lanbideak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10 eta 11.orr.*

Talde handian, Maddalenek eta Ferminek esandakoa irakurriko dugu. Pertsonaien gurasoen lanbideei buruzko solasalditxoak izango dugu, zertan datzan bakoitzaren lanbidea, zer dakigun lanbide horietaz,... Gogorarazi, lanbide guztiek dutela gizarteari eskaintzeko garrantzizkoa den zerbait eta inor ez dela gehiago ala gutxiago lan bat edo beste egiteagatik.

Ondoren, etxekoen ogibidea idatzi behar duten bi fitxa horien izenburuari errepatuko diegu. “Gure” izenlaguna da hemen azpimarratu nahi duguna.

Euskal Herrian, tradizioz, aita eta amari buruz hitz egitean, nahiz eta seme edo alaba bakarra izan, “gure” eta ez “nire” izenlaguna erabili izan ohi da, gure aita edo gure ama. Eta ez bakarrik gurasoak aipatzean, senitartekoekin beste hainbeste gertatzen baita: “gure gizona”, “gure alaba”, “gure amama” ... Gaur egun, gaztelania hizkuntzaren eraginagatik, galtzen ari da erabilera hau, errekuera dezagun bada, guztiz galdu baino lehen!

Ikasleek etxean euren etxekoen lanbideari buruzko informazioa eureganatu ondoren, fitxa hauek osatu beharko dituzte banaka. Gero, talde handian bakoitzaren etxeko lanbideei buruzko xehetasunak aipatuko dituzte, honela lanbideei buruzko ezagutzak handitzeaz gain, ahozko adierazpena landu eta garatu ahal izango dute.



## **27. Bertsoa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 4. lan-koadernoan, 6.or.*

Orain arteko bertsoetan ikasleei oinak zegokien lekuan jartzea besterik eskatzen ez bazitzairen ere, oraingo honetan, bertso-lerro osoak jarri beharko dituzte dagokien tokian. Beraz, hasteko, Mikel Mendizabalen osatu gabeko bertsoa irakurriko dugu, bertsoaren zentzua hartzeko. Ondoren, esaldiak irakurriko ditugu. Gero, hainbat estrategia erabiliz (dedukzioa, eliminazioa...) arbelean bertsoa osatzen joango gara denon artean. Honen ostean, bakoitzak bere lan-koadernoan kopiatuko du. Bukatzeko, denon artean abestuko dugu. Bertsoei buruzko edozein zalantza (doinuak, neurriak...): [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com) helbidean argitu dezakezue.

Nahi izanez gero, ikasleek asmatutako esaldiak txertatu ahal dizkiete bertsoari, honela, oinarri bera erabiliz, bertso berriak sortuz.

## **28. Lanbideek eskaintzen digutena aztertzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12 eta 13.or.*

Urdintxok esaten duena talde handian irakurri ondoren, lanbide guztiek beharrezkoa dugun zerbaiten eskaintzen digutela adieraziz, bakoitzaren garrantzia azpimarratuko dugu eta gai honen inguruan dauden aurreritziak apurtzen saiatuko gara.

Ondoren, ikasleek binaka, gurasoen lanbideetatik aparte ezagutzen dituzten beste sei lanbideri buruzko ezaugarriak idatzi beharko dituzte, argi adieraziz lanbide bakoitzak gizarteari eskaintzen dion zerbitzua.

Kontuan izanik, produktu baten prozesu ziklikoaren ibilbidea ikasten ari garela, komenigarria litzateke, unitatean zehar pausu edo urrats berri bat agertzen den bakoitzean ikasleei arreta bereziz argitzea eta ikustaraztea.

Lanbide bakoitzak ekarpen bat egingo digu eta zikloko hainbat fase agertu daitezke jarduera honetan, aipatzea komenigarria da.

## **29. Gurutzegrama**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koadernoan, 7.or.*

Aginduari erreparatu, “makina bat” esaeraren esanahia argituko dugu. Ondoren, ikasleek bakarka, definizioa irakurriz lanbidearen izena asmatu eta dagokion laukietan idatzi beharko dute.

- Emaitzak: 1. Sukaldaria, 2. Suhiltzailea, 3. Igeltseroa, 4. Margolaria, 5. Abeslaria, 6. Irakaslea, 7. Kazetaria, 8. Tabernaria.

### 30. Entzunaldia: Sevillako bizargina

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: CDa, jarduerak*

Rossini konpositore Italiarraren biografia irakurriko dugu eta beti bezala, “Gure konpositoreen txokoa”-n itsatsiko dugu.

**Rossini, Gioacchino.** Konpositore Italiarra (Pesaro, 1792 – Paris, 1868). “Bel canto” opera-eskolako musikari nagusietakoa eta Mozarten eskolaren jarraitzailea izan zen. Arrakasta handia lortu zuen Berrezarkuntza garaian. Opera dramatikoak eta bufoak idatzi zituen: Tankredo, Othello, Sevillako bizargina, Gillermo Tell. Bi dira bere operen ezaugarriak, melodia alai eta gozoak batetik eta umorea bestetik.

Entzunaldia jarri orduko, irakasleak haurrak girotu egingo ditu:

Ipuin bat kontatuko dizuet: Imajina ezazue, aspaldi-aspaldian, gizonak bizarginarengana joaten zirenean bizarra egitera, orduan etxean bizarra egiteko ohiturarik ez baitzegoen! Imajina ezazue, bizartegi bat, bertan bizargina dago bezero batekin, bizarra egiteko prest. Bitartean labana ondo-ondo zorrotzu du, lanerako puntu-puntuan du tresna, bezeroaren aurpegia bits zuriarekin estaltzen du, astiro-astiro eta gozo-gozo, eta orduan labana eskuan hartu, eta, bere lana hastera doa.

Momentu horretan irakasleak hau esango die ikasleei:

Orain ipuin hau musikak jarraituko du kontatzen, baina zuen imajinazioaren laguntza behar izango du, gogoratu, labana eskuan hartu eta, ...bere lana hastera doa!

Entzunaldia jarri orduan.

Entzunaldia bukatzean, ikasleek imajinatutakoa lau bineta dituen komiki baten bidez adieraziko dute.

### 31. Ingelesa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14.or.*

#### JOBS

Ask what they have been working on. Maybe, talk about parent’s jobs.

*Let’s see what we can do in English. Look on page 14 Look at Reddy! What on earth has he got on? A space helmet! What is he saying? “I want to be an astronaut when I grow up”.*

*So we have to think what we want to be when we are grown up, older, bigger, like Mummy and Daddy.*

*Do you want to be a teacher? No!*

*Do you want to be a doctor?*

*Do you want to be a ....etc.*

*O.K. we have to think. Then we have to mime to the others and the others have to guess. For example let me see...*

*When I grow up, I want to be.....(Mime something e.g. a clown a fisherman, a singer etc.) The pupils must guess. If they shout out in Euskara, get the others to see if they know the word in English. As they come up write the name of the job with the pupil’s name on the bb e.g. “Dancer – Maider”.*

When you have had enough volunteers, draw their attention to the second part of the page.

What does it say here? “Draw yourself in your job as a grown up”. What does that mean? What does Maider have to draw? Herself, when she is big, dancing. And Iker? Etc.

*Go around praising their pictures and helping them to construct a title for their picture in English.*

### **32. Alferraren astea**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: CDa*

“Alferraren astea” abestia entzungo dugu eta, letraz eta mezuaz jabetu ondoren, buruz ikasiko dugu. Ondoren ikasleek buruz ikasita duten abesti hau berridatzi eta honen irudia egingo dute.

Abestia bitarteko dela, asteko egunak birpasatuko ditugu: jarraian aipatuz, atzekoz aurrera esanez, asmakizunak eginez (gaur astelehena bada, bihar zein egun izango da?).

Jolasa bitarteko dela, denbora adberbioak ere ikasteko aprobeztatuko dugu:

- Gaur: uneko eguna.
- Atzo: unekoaren aurreko eguna.
- Herenegun: atzokoaren aurreko eguna.
- Bihar: unekoaren hurrengo eguna.
- Etzi: biharkoaren hurrengo eguna.
- Etzidamu: etzikoaren hurrengo eguna.
- ...

Proposamen bezala luzatzen dugu, gelako hizkuntza egoeraren aniztasuna kontuan izanik irakasleak egokitzat jotzen badu, asteko egunak eta denbora adberbio hauek, batueraz gain, norberaren eskualdeko euskalkiak izendatzen dituen bezala ere ikastea.

### **33. Zu ere langile fina!**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15.or.*

Ikasleek bakarka, egunean zehar ikastolan eta etxean egiten dituzten lanak zerrendatuko dituzte eta ondoren, euren burua marraztuko dute, zerrendatutakoen artean gustuko duten lana burutzen. Honen ostean, lehenengo talde txikietan eta gero talde handian, duten adinean jakin eta bete beharko liratekeen lanen inguruko eztabaida bultzatuko dugu.

Jardueraren haria jarraituz, heldutasunari buruz hitz egin dezakegu:

- *Zer da heldua izatea?*
- *Zuetariko nortzuk duzue zuen burua heldutzat? Zergatik?*
- *Heldua eta handia hitzak gauza bera esan nahi al dute?*
- *Heldua izateak suposatzen al du, jolasa alde batzera utzi eta lana besterik ez dugula egin behar?*
- *Eztabaida bukatu orduko saiatu orain heldutasuna definitzen.*

Irakasleok aprobezta ezazue gai hau, hainbat estrategia erabiliz (zirikatu, animatu, landu...), ikasleen aurrean ardura eta adinari dagokion “heldutasuna” baloratzeko.

### 34. Lan iragarkiak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 63.or.*

Egunkari guztietan, berriez gain iragarkiak ere azaltzen zaizkigu. Gaiaren haria jarraituz, lan poltsari dagozkion iragarkiak irakurri ahal izango dituzte ikasleek. Gaur egungo lanaren egoerari buruz hitz egin dezakezue: langabetuak. lana guztiok dugun eskubidea izanik eskubide hori gauzatzen den...

### 35. Gaileten ekoizpen-prozesua

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16 eta 17.or.*

Bi orrialde hauetan zehar, argazkien, eta hauei dagozkien azalpenen bidez, gaileten ekoizpen-prozesua adierazten zaigu. Prozesu hau ezagutu eta ulertzeko asmoz, talde irakurketa egingo dugu, ikaskuntza kooperatiboa praktikan jarritz.

Ikaskuntza mota honen xedea betikoa da, ulermenaren eraikuntza, baina irakurketari jolas itxura ematen dionez, haurren irakurketarekiko motibazioa erraztu eta pizten du.

Irakurketa honek, bi helburu nagusi ditu, testuaren ulermena batetik, eta bestetik irakurketa-estrategiak era esplizituan eta kontestu naturalean lantzea. Beraz, ulermenaren bidez ezagutzak bereganatzeaz gain, ikasleak, irakurketa-estrategien funtzioaz ere jabetuko ahal izango dira.

Baina, nola gauzatu jarduera hau?

Talde txikietan esperimintatzea aholkatzen dizuegu, hala ere, lehenengo aldia denez, talde handian ere egin daiteke.

Parte hartzaile bakoitzak rol bat izango du eta rol horri dagokion funtzioa bete beharko du. Irakurtzea dagokigun testu mota ikusirik (azalpen testua) eta praktikan jartzen dugun lehenengo aldia dela kontuan izanik, hiru rol besterik ez ditugu erabiliko jarduera hau burutzeko: Irakurlea (dekodifikazioa), ikertzailea (hitz ezezagunei buruzko argibideak) eta kazetariarena (laburpena edo sintesia).

Hasteko rolen definizioa argituko dugu:

- Irakurlea: Talde kide bakoitzak bere liburuan irakurketa jarraitzeko aukera izango badu ere, irakurle ofizial honek egingo du ozeneko irakurketa.

- Ikertzailea.: Ulertzen ez duen hitzen bat entzuten duen bakoitzean, irakurketa eten egingo du eta testuingurua kontuan izanik, hitz horrek zer esan nahi duen argitzen saiatuko da. Ez bada gai erantzuna asmatzeko beste taldekide bat saiatu daiteke. Denen artean ere, hitzen bat argitzeko gai ez badira, ikertzaileak irakaslearen laguntzaz, hiztegian bilatutako definizioa taldekideei irakurriko die.

- Kazetaria: Irakurketa bukatzean, irakurritakoaren laburpena egin beharko du.

Rolen banaketa egiteko gelakideak taldeetan banatu behar ditugu. kopuru ezberdineko gelak izango dituzue, proposamena litzateke, taldeko bat irakurlea izatea, bestea, kazetaria, eta beste bi edo hiru ikertzaileak.

Irakurlearen rola, irakurketaren dekodifikazioan arazoak dituztenei eman diezaiekezue.

Jarduera honek, arestian aipatutako guztiaz gain, ikasleei ahozko adierazpena lantzen ere lagundu diezaieke.

Esperientzia praktikan jarri ondoren, talde handian honi buruz hitz egiten jardungo dugu: gustukoa izan duten, zein zailtasun izan dituzten, paperak argi gelditu diren, paperen bat ondo ez betetzeak zer suposatu dezaken, zein den paperik zailena eta zergatik... Elkarriketa honek, irakurketari dagokionez, irakasleoi pista asko eman diezaizkiguke, ikasle bakoitzak dituen zailtasunak agerian geldituko baitira.

Guzti honen ondoren, kazetari lana egiteko gai izango liratekeen galdetuko diegu eta kazetari izandakoei euren lana betetzeko aginduko diegu. Honela, ulermena ziurtatu den ikusiaz batera, irakurketaren mamiaz mintzatuko gara eta gaileten prozesuan ematen diren pausuez jabetuko gara. Gaileten prozesuan produktuaren ibilbide ziklikoko hiru fase ikusiko ditugu: lehengaiak bildu, eraldatu eta garraiatu, aipatu eta idatzi!

### **36. Poxek irteera bat egitera gonbidatzen gaitu**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Gaileten prozesua ezagutu ondoren, Poxek beste produktu baten ekoizpen prozesua ikustera gonbidatzen gaitu, beraz, kontuan izanik hurrengo orrialdean ikasleek ikusitako prozesuaren inguruko galderak erantzun beharko dituztela, irakasleak, aldez aurretik eguna eta ordua hartua duen leku horretara joatea proposatu diezaieke. Seguru gaude ikasleek onartuko dutela irteera gustu onez.

Irteera burutu aurretik, adieraz iezaiezue ikasleei nora zoazten, zein ekoizpen prozesu ikustera, eta baita irteera honetan ikusi eta ikasitakoak, liburuan agertzen diren hurrengo jarduerak osatzen lagunduko dituztela. Ikus itzazue orriok, haurrek zein motatatako informazioa behar duten aurretik jakin dezaten.

### **37. Gurasoei gutuna**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

Irteera eguna eta ordua zehaztu bezain laster gurasoei honen berri emateko gutuna, oraingo honetan, denon artean idatziko dugu. Horretarako arbelean idatziko duen *Idazlea* izendatuko dugu. Hasteko eskema txiki bat adostuko dugu, eskutitz horretan azaldu nahi duguna adieraziz. Ondoren *Idazleak* arbelaren ezker aldean idatziko du eskema. Gero ideiak garatuz eskutitza osotzen joango gara arbeleko eskuinaldean. Eskutitza burutua dagoenean, ikasle bakoitzak bere folioan idatziko du, arratsaldean gurasoei emateko.

Jarduera honekin ikasleek hurrengoaz jabetzeko aukera izango dute:

- Eskutitza den testu mota eta honen zatiez.
- Berridazketak suposatzen duen ideien ordenak, kohesioak eta koherentziak duen garrantziaz.
- Puntuazio eta ortografiak duen garrantzia.
- Letra argiz idaztearen garrantzia, ulergarritasun ezak kopiatzeko orduan dakartzan kalteak esperimendatuz.

### **38. Gaileten ekoizpen-prozesua berridazten**

*Lan egiteko era: Talde handia/Binaka*

*Materiala: 4. lan-koaderno, 8.or.*

Testu batean hainbat ideia agertzen zaizkigu eta hauek ordenatu eta koherentziaz lotu egin behar izaten ditugu, testu horrek zentzua izan dezan.

Prozesu batek urratsak izaten ditu eta hauen segida adierazteko, denborazko loturak erabiltzen ditugu.

Gurasoen gutuna zela medio hasiera eman bagenion gai honi, orain apurka-apurka osatzen joango gara. Jarduera egiten hasi orduko beraz, azaldu ikasleei zer diren denborazko loturak, zein funtzio betetzen duten eta adierazten dutenaren arabera testuan dagokien tokia zein den. Ondoren, lan-koadernoan agertzen direnez gain, ezagutzen dituztenak izendatuko dituzte, testuan dagokien tokia aipatuz: hasieran, prozesuaren baitan edo bukaeran.

Bukatzeko, binaka adostuz, ikasle bakoitzak bere lan-koadernoan gaileten ekoizpen-prozesua lau pausutan laburbilduko du.

### **39. Ikusitako produktuaren prozesua idazten**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18 eta 19.or.*

Talde handian, irteerari buruzko elkarrizketa sortuko dugu; gustuko izan duten, berria den zerbait ikasi duten, bakoitzaren inpresioak alderatu, ikusitako prozesua berriro gogoratu... Ahoz eta denen artean lau fase nagusitan laburbildu prozesua. Ondoren, binaka (idatzizko ekoizpenean zailtasunak dituzten ikasleekin, irakasleak erabaki bikotekideak beharrianak aurreikusiz) edo bakarka, irteerari buruzko galderak erantzuteaz gain, ikusitako prozesua idatziz adierazi beharko dute eta pauso bakoitza adierazten duen irudia ere marraztu beharko dute.

Ez ahaztu zuek ikusitako prozesuan ematen diren produktuaren ibilbide ziklikoko faseak aipatzea!

### **40. Produktuak aztertzen**

*Lan egiteko era: Binaka/Talde txikian/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20 eta 21.or.*

Binaka, klipean agertzen dena irakurri eta orrialde honetan eredu bezala agertzen zaigun produktuaren bilgarrian emandako produktuari buruzko informazioa aztertuko dugu, datu guztien esanahia argituz.

Gogoratu ikasleei arbelean idatziz, fase honetara heldu arte produktu horrek egin duen ibilbidea: lehen gaia bildu, eraldatu, garraiatu, kontsumitu.

Ondoren, ikasleei proposatuko diegu etxean dauzkaten produktuen bilgarriak ekartzeko, talde txikietan edo handian, azter ditzagun. Etxetik ekarritako bilgarri edo etiketetan agertzen den informazioa gelan sakon aztertu ondoren, ikasle bakoitzak bat aukeratuko du eta liburuan itsatsiko du, (sartzen ez bada handiegia delako, zati bat edo produktuaren izena itsatsi dezakete) gero, eskatzen zaizkion datuak osatuko ditu.

Gelara ekarritako bilgarri hauek txoko zurian edo kutxaren baten utzi itzazue aurrerago emango baitiogu erabilgarritasuna, birziklapenaren fasean.

### **41. Txikleak, hitzik gabeko komunikaziozko joko kooperatiboa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Orain bilgarririk gabeko kontsumo-produktu bat bihurtuko gara: txikleak.

Ikasle bakoitza txikle zati bat izango da, gelatik zehar ibiliko dena “ñan-ñan” erritmora, hanka biak batera dituela saltoak ematen. Beste baten ondotik pasatzean elkar ukitzen

badute, txikle zatiak itsatsi egingo dira eta elkarrekin egingo dute salto. Gela guztia txikle handi batean biltzen denean eta txikle masa horrek gelatik zehar salto batzuk eman ondoren bukatuko da jolasa.

Iraupen laburreko eta dibertsio handiko jokoak dugu hau, ikasleen arteko kohesioa erraz lortzen duena. Joko hau beste saio batzuetan erabiltzea ere interesgarria litzateke.

Bukatzerakoan beti bezala, talde elkarrizketa sortuko dugu.

#### **42. Produktu baten iragarkia**

*Lan egiteko era: Binaka/Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koaderno, 9.or.*

Bakarka edo binaka jarriaz, ikasleek ezaguna edo asmatua den produktu baten iragarkia egin beharko dute. Azpimarratu iezaiezue, irudiaren eta hitzen erakargarritasunaren garrantzia. Kolore, forma eta hitz-jokoak izan daitezke hori lortzeko bidea.

#### **43. Produktuaren iragarkia telebistan**

*Lan egiteko era: Binaka/Bakarka*

Talde txiki horiek mantenduz, produktu hori telebistan iragartzeko iragarki bat asma eta antzez dezakete. Bereizi, hainbat komunikabidetako iragarkiek dituzten desberdintasunak (irudiari dagokionean, hitzari dagokionean, letrari dagokionean...).

#### **44. Artelana: Andy Warhol**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22.or.*

Andy Warhol pintore garaikidearen eta pop arteko artistarik esanguratsuenaren “Campbell’s zopa poteak” izenburua duen artelana dugu hemen. Gaur egungo produkzio-lanetan eta horrela ekoiztutako produktuetan oinarritzen zen bere artelanak sortzeko.

Gu ere, ideia hori buruan, gure artelanak eraikitzen saiatuko gara.

Kontsumitzen, jaten, edaten, erabiltzen... ditugun produktuen markak, etiketak, kaxak... elementu estetiko moduan landuz artelan bat egingo dugu.

Honetarako, erabiltzen ditugun produktu horien etiketak jaso, eta baita kaxa, botila... ere. Edota etxera saltoki handietatik iristen zaizkigun propagandetatik produktu horien argazkiak moztuz sortuko dugu aipatu artelana.

Koadroaren konposizioa elementuak inolako ordenarik gabe ipiniz osatu dezakegu, anabasa moduan. Edo ordena jakin baten bidez, (ikus “Campbell’s zopa poteak”) modulazio-lineala erabiliz, errepikapenaren bidez sortu, produktu horiek zenbat aldiz erabili edo kontsumitzen ditugun azaltzeko asmoz. Eta baita gaur egungo ekoizteko modua adierazteko ere.

Lan plastikoa erabat laua izan daiteke (collagea) edota objektu tridimentsionalak osorik edota zatituta erabiliz eta hondoaren gainean ipiniz behe-erliebeak sortuaz.

Helburu estetikoak izango dituzten eskultura-eraikinak sortu ditzakegu bolumena eta tridimentsionalitatea lantzeko.

Lanetan, helburuaren arabera, margoak erabil ditzakegu hainbat atal nabarmentzeko, objektu bati buruz arreta erakartzeko, zati bat indartzeko edo obra guztiari lotura emateko.

#### **45. Hondakinak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 23.or.*

Poxek eta Urdintxok esandakoa irakurri ondoren, Urdintxok esandakoa kontuan izanik, produktu baten prozesu ziklikoan orain arte ikasitakoa berriro gogoratu eta momentu honetan zein fasetan gauden azpimarratuko dugu. Produktua kontsumitu ondoren sortzen diren hondakinak aztertzen ari gara.

Ondoren ikasleek egun batean zehar sortzen dituzten hondakinen zerrenda egin beharko dute. Jarduera honekin, ikasleak gizakiok sortzen dugun zabor pilaz jabetzea nahi genuke, honen kontzientzia aktiboa izatea, alegia.

#### **46. Bideoa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Bideoa*

Talde handian, dagokigun gaiari buruzko bideo zatia ikuiko dugu. Baina ikusi aurretik ikasleak girotu egingo ditugu, ikusiko dutena laburki azalduz. Arreta jartzearen garrantzia ere azpimarra iezaiezue, bideoa aitzakia den orrialdea osatzeko behar izango dutela adieraziz.

#### **47. Bideoa aitzakia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 24.or.*

Produktuen ibilbidea jarraituz, kontsumitu ostean sortutako hondakinekin egin dezakegunari buruz eztabaidatuko dugu, birziklatu edo zaborretara bota? Urdintxok esandakoa azpimarratu.

Gaur egun sortzen dugun zabor kantitate handiari buruz aritu ondoren, egoera honi, norbanako moduan eman diezaizkiokegun irtenbideak aurkitzen saiatuko gara.

Egungo gehiegizko kontsumoari buruz hitz egitea komenigarria da. Egunerokotasunean “behar” ditugun eta behar ez ditugun gauzen kontsumoari buruzko hausnarketa bat bideratzea oso egokia litzateke horren kontzientzia hartzeko. Gauza horien guztien zerrenda egin dezakegu eta beste zutabe batean horiek sortzen duten hondakin multzoa ere adieraz dezakegu. Gure gehiegizko kontsumoa, eta herri pobreagoen egoera alderatzea ere beharrezkoa izan daiteke.



#### **48. Igarkizunak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 64.or.*

J.K. Igerabideren (zaborra eta paper birziklatua) eta Txilikuren (zabor poltsa) igarkizunak ditugu bertan. Ikasleek bakarka irakurri eta erantzuna asmatu ondoren, talde handian irakurri eta erantzun posibleak eztabaidatu.

#### **49. Buelbaka-buelbaka birziklatuz**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa/Irakurgaiak 2, 65 eta 66.or.*

Abesti honek birziklapenari buruz hitz egiten digu. Lehenengo entzun eta letra eta mezuaz jabetuko gara. Ondoren irakurgaietara joko dugu bertan agertzen den letrarekin batera abesteko.

Abestiak adierazten digun mezuaren inguruan elkarrizketatxo bat garatuko dugu.

#### **50. Birziklapena**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 25.or.*

Birziklapena zer den jakiteko, ikasleek irakasleak egindako diktaketa idatzi beharko dute euren liburuan. Diktaketa:

*“Birziklapena prozesu zikliko bat da, lehen erabilitako produktuak edo gaiak berriro erabilgarri diren produktu bihurtzen dituena. Bi urrats ditu:*

- 1. Hondakinak sailkatu eta ontzi berezietan botatzea.*
- 2. Lantegietan, prozesu berezi baten bidez, produktu berriak sortzea.”*

Gero, ikasleek, azpian agertzen diren ontzi bakoitzean sartu behar den hondakin motaren izena idatzi beharko dute

Liburuaren orrialde honetara heltzerako, produktuen ibilbide ziklikoa osatua, ikusia eta landua dugunez, era grafikoan, fase guztiak arbelean idaztea proposatzen dizuegu:

Produktuen ibilbide ziklikoaren faseak:

Lehengaiak bildu-Eraldatu-Garraiatu-Saldu-Kontsumitu-Birziklatu

#### **51. Aizu, birzikla ezazu!**

*Kudeaketa: Bakarka/Talde handian*

Ikasleei euren etxeetan birziklatzen ote duten galdetuko diegu, eta ondoren, etxean praktikan jartzeko proiektutxo bat proposatuko diegu.

Ikasleen eta hauen familiakoen kontzientzia astinduz, birziklatzeko ohitura egokiak sortu edo daudenak hobetzea da, proposamentzen dugun jarduera honen helburua.

Aste betez (zuek baloratu luzeegia ote den epea etxe batean hainbeste pote eta paper edukitzeko), ikasleek egunero euren etxeetan sortzen den zaborra sailkatu egin beharko dute. Horretarako, kartoizko hiru kutxa lortu beharko dituzte (dendaren baten eskatu) eta kutxatako bat plastikozko zakar poltsa batekin barrutik forratuko dute. Forratutako

kutxan, BRIKA-PLASTIKOA-LATAK idatziko dute errotulagailu batekin, beste batean, KARTOIA-PAPERA idatziko dute, eta hirugarrenean, BEIRA idatziko dute. Astea bukatzen denean, aste betean sortu eta birziklatu daitezkeen zabor kantitateaz ohartzeko esango diegu eta dagokien kaleko zabor ontzietara bota dezaten eskatuko diegu.

Behin proiektua bukatzean, gelan talde handian, bakoitzak izandako esperientzia kontatu eta baloratzeko aukera izango du.

## **52. Letra-zopa**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koaderno, 10. orr.*

Ikasleek bakarka letra-zopa honetan, birziklatu daitezkeen hamar elementuren izenak aurkitu beharko dituzte: pila, lata, brika, plastikoa, papera, kartoia, beira, egurra, olio, arropa.

## **53. Ba al zenekien?**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 67. or.*

Ikasleek ekologiarri buruzko informazioa ematen diguten esaldiak bakarka irakurri beharko dituzte. Ondoren talde handian irakurri eta komentatuko ditugu.

## **54. Egia-gezurra**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or.*

Irakurritakoari buruzko bost esaldi agertuko zaizkie ikasleei liburuan. Bakarka, gezurra adierazten dutenak detektatu eta zuzendu egin beharko dituzte. Ondoren, denon artean zuzenketak alderatu eta justifikatuko ditugu.

## **55. Ipuin literarioa: Mister Daffodil eta bere denda**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Unitate honetan birziklapena produktu baten ibilbide ziklikoaren une bat dela ikusi dugunez, birziklapena gai bezala duen ipuina lantzea proposatzen dizuegu, nahiz eta kasu honetan amets gaiztoak diren birziklatuko direnak. Ipuina, Elkar argitaletxeko Lamia saileko Asun Balzolaren “Mister Daffodil eta bere denda” da.

Hasteko, beti bezala, euskarriaren azterketa egingo dugu: azala, idazlea, marrazkilariak... aipatuz.

Ondoren azalean ikusitakoaren inguruko elkarriketa sortuz, gaiaren inguruko hipotesiak egitera bultzatuko ditugu ikasleak:

*- Zein hizkuntzatan dago idatzia izenburua? Zuek ingelesez asko dakizue, ezta? Zer esan nahi du Mister-ek? Eta Daffodil-ek? Nor izango da Mister Daffodil hori? Nolako denda izango du? Zer salduko ote du?...*

- *Nor da azalean agertzen den neska? Zer du esku artean? Zer uste duzue izango duela pakete barruan? Nora doala uste duzue? Zer erlazio izango du azaleko neska Mister Daffodil delako horrekin?*
- *Zeri buruzkoa izango ote da ipuina?*

Irakurri bitartean, ulermena bermatzeko eta motibazioak piztuta jarrai dezan, argibide batzuk emango dizkiegu ikasleei eta era berean, ekintzak aurreikusten saiatuko gara, aurrera joan ahala gure hipotesiak baieztatuz edo ezeztatuz eta hauen inguruko inferentziak atereaz.

Irakurri ondoren, asimilazio estrategiak jarriko ditugu martxan:

- *Ipuin honetako pertsonaiak nolakoak izan dira, fantastikoak edo errealak? Eta ekintzak? Zergatik?*
- *Zein uste duzue izango zela Ninak birziklatzera eraman duen ametsa? Zuek izaten al duzue amets gaiztorik? Zein eramango zenukete birziklatzera? Benetan birziklatu al daitezke ametsak? Zer dira ametsak? Nolakoak izaten dira? Zergatik izaten ditugu? Zer egin behar da hauek uxatzeko? Ezagutzen al duzue E.H.an ametsak betetzeko egiten den beste sinesmen erritualen bat? San Juan sutara bota hiru papertxotan idatziriko hiru desio edo amets... Zein? Zertarako egiten da? Nork egiten du? Betetzen al dira ametsak? Eta noren esku egoten da ametsa betetzea edo ez?...*

## **56. Ekoauditoria**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 27.or.*

Ingurugiroa zaintzeko ikasle bakoitzak dituen ohitura eta ardurez kontzienteak izateko, ekoauditoria baten antzeko galdetegia planteatu dugu jarduera honetan. Erantzunaren emaitza ikusita, argitasunez ikusiko da zein punturaino arduratzen dituen ekologiak. Ikasleak gai honen garrantziaz kontzientziaz da helburu nagusia.

## **57. Ipuina ekoizten: Binomio fantastikoaren ideia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Hasteko elkarrizketa sortuko dugu talde handian:

- *Denok dakigu ipuinak alegiazko kontakizunak direla, baina batzuetan errealitateko pertsonaietan oinarritzen dira eta zilegiak diren ekintzak kontatzen dizkigute eta beste batzuetan berriz, fantastikoak izaten dira.*
- *Zuek zein atsegin duzue gehiago? Zergatik?*
- *Nahi baduzue, ipuin fantastikoak sortzeko oso baliagarria den teknika bat azalduko dizuet, nahi al duzue?*
- *Binomio fantastikoan oinarritzen den ideia da. Ba al dakizue zer den binomio bat? Begiratu al dugu hiztegian? Binomioa gai biren batura da. Eta fantastikoa?*

Honen erantzuna euren hipotesiak entzun ondoren denon artean ondorioztatuko dugu. Jarraian ikasleei binomioaren ideia azalduko diegu.

Anjel Lertxundik bere "Haur literaturaz" liburuan, Gianni Rodari idazle italiarraren binomioa fantastikoaren ideia aipatzen du, ipuin klasiko eta modernoek, eta literatura osoak ere, binomio fantastiko baten bidez funtzionatzen duela esanez. Ideia hau ipuinak ekoizteko oso tresna baliagarri izan daitekeelakoan, geuk ere geureganatu eta ikasleei eskaintzea erabaki dugu.

Honela definituko genuke binomio fantastikoaren ideia:

Har dezagun bizitzan erabat normala den elementu bat "A", har dezagun bizitza normalean erabat normala den beste elementu bat "B", eta sarritan, A eta B elementuak elkartuz, erlazio fantastikoak sortzen zaizkigu.

Adibidez: A= Elefantea, B=Titarea

Elefantea eta titarea esanez gero ez dugu erlazio fantastikorik sortzen, baina bai titarea bezain txikia zen elefantea esanez. Eta erlazio fantastikoaren formulazio soilak ipuin bat irudikatzen garamatza, "Titarearen neurriko elefantea".

Binomioak neurritz, funtzioz, izaeraz... antagonikoak diren elementuekin sortuz gero, ipuinerako joko handiagoa izan dezakezue. Adibidez: "Katurik ezagutzen ez zuen sagua", "Hitz egiten zuen baloia", "Okerretara zebilen erlojua", "Hegorik gabeko tximeleta"...

Binomio fantastikoaren ideia ikasleei azaldu eta argitu ondoren, talde handian binomio fantastikoak osatuko ditugu eta arbelean idatzi.

- *Ezagutzen ditugun ipuinen artean, gogora datorkizue binomio fantastikoa erabiltzen zuen baten bat? Botadun katua, Marraskilo korrikalaria...*

*Asmatuko al ditugu binomio fantastiko berriak?*

Gero denon artean binomio guztietatik bat aukeratuko dugu eta sortzen diren ideiak arbelean gidoi modura antolatuko ditugu, bukatzeko ipuina ahoz garatuz.

Jarduera hau behin baino gehiagotan errepikatzeko aholkatzen dizuegu.

## **58. Goazen ipuina ekoiztera**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koadernoan, 11, 12 eta 13.or.*

Ipuina ekoizten hasi orduko, beti bezala, idatzi aurretiko urratsak jarriko ditugu martxan. Planifikatzen ari garen honetan, argi utziko dugu zer egingo dugun eta zein helbururekin. Ondoren denon artean ipuina osatzeko behar ditugun ideiak botako ditugu, gogoratu binomioaren ideia aprobetxatu dezakezuela ideiak sortzeko orduan. Ideia guztien artean, bat aukeratu eta hura jorratzen hasiko gara, eta honen inguruan botatuko proposamenak eskema modura arbelean idazten joango gara. Ondoren, ikasleek binaka (edo banaka, ikasleren bat horretarako gai ikusiz gero) folio batean euren ideiak garatzeari ekingo diote, horretarako behar dituzten hitzak eta hizkuntza formak aukeratuz eta ipuinen txokoan dituzten erreferentziak kontuan izanik. Behin lan hau egindakoan, ipuinaren zirriborroa irakasleari erakutsi eta irakasleak egoki ikusten dituen zuzenketak egitera bultzatuko du ikasle bakoitza. Gero ikasle bakoitzak ipuina letra ulergarri eta garbiarekin bere lan-koadernoan kopiatuko du.

Gogoratu ipuina CD-ROMean editatzeko aukera ere baduzuela, asmoa hori bada, komenigarria litzateke, gaia zein den irakurri ondoren, CD-ROMeko hondoak eta pertsonaiak begiratzeko ideiak hartzea eta hauen inguruan ideiak sortu eta garatzea.

## **59. Hainbat produkturen ibilbide ziklikoak**

*Lan egiteko era: Binaka*

*Materiala: Material osagarria*

Ikasleek gelara ekarri zituzten produktuen bilgarriak aprobetxatuz, hainbat produkturen ibilbide ziklikoak, Din-A-3 folioetan edo kartulinetan adierazi behar dituzte. Horretarako binaka, bilgarri bi aukeratuko dituzte eta material osagarrian agertzen diren faseen izenak ordenan kartulinaran itsatsiz eta irudiekin ilustratuz, prozesu osoa adierazi beharko dute.

## **60. Proiektua: Hondakinekin egindako artelana**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde txikian*

*Materiala: Irakaslearen liburua, 28 eta 29.rr.*

Hondakinei beste erabilpen bat emateko ideiarekin, etxetik ekarritako hainbat material aprobetxatuz, hainbat artelan egitea proposatzen dizuegu. Lau dira gure proposamenak:

-Oihal puska zaharrez, plastikozko poltsekin... egindako tirak erabilia egurrezko bastidore batean iltzeen laguntzaz tapizak egitea.

-Buztinezko xaflatan edo bolumenezko piezetan azulejo puskak, torlojoak, harri txokorrak, e.a. sartuz, artelanak egitea.

-Panpinak, robotak, animaliak, nahiz beste edozer egitea; kutxa zahar, komuneko paperaren hodiak, arrautza kutxa, kortxoa, kartoia, etab. erabiliaz.

Goian aipatutako hiru proposamen hauek bakarka nahiz binaka egin daitezke, laugarrena, ostera, talde txikietan eta irakaslearen laguntzaz egitea aholkatzen dizuegu.

-Bi irudi horietan ikusten den bezala, hondakin izan zitezkeen materialak erabiliz, mota askotako konposizioak egin daitezke, eta gero, kontu handiz eskanerrean jarriaz (eskanerreko pantaila plastiko garden batekin babestu), eskaneaturiko artelanak gorde, tratatu, edo inprimatzeko aukera izango dute, gerora, hainbat lan eta bildumen azal bezala erabiltzeko aukera izanik.

Egindako artelan guzti hauei izenburua jarri, sailkatu eta gelan txukun jarri ondoren, erakusketatxo bat antolatu dezakezue.

Eta ez ahaztu! Hondakinekin egindako panpinak txotxongiloak bihur ditzakezue. Nola? Panpin horri ahotsa, mugimendua, eta bizi propioa ematen. Eta noski! Istoriotxo bat asmatzen.

## **61. Ipuina**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 68, 69, 70 eta 71. or.*

Ipuina irakurtzeko, oraingoan ere, talde irakurketa egingo dugu, ikaskuntza kooperatiboa praktikan jarritz. Hainbat testu mota ulertzeko erabiltzen diren estrategiak ere hainbat izaten direnez, oraingoan beste rol batzuk praktikan jarriko ditugu.

Azalpen testuan bezala, Irakurlea, Ikertzailea eta Kazetariak parte hartzeaz gain, oraingoan Asmatzaile eta Jakintsuaren rola ere praktikan jarriko ditugu.

-Asmatzailea: Testuaren haria jarraituz nola bukatuko den asmatu edo iragarri beharko du bukaerara heldu orduko.

-Jakintsua: Irakurritakoa garrantzitsua den beste informazio batekin erlazionatuko du, testua errazago ulertzeko asmoz.

Jakintsuaren rola zein den ez ulertzea gerta dakieke ikasleei, beraz irakaslearen laguntza behar izatea normalizat jotzen dugu.

Bosteko taldeak osatuko ditugu beraz, taldeko irakurketa egiteko.

Irakurketa burutzean, esperientziari buruz mintzatuko gara, rola, zailtasunak, irakurketa mota honen alde onak eta txarrak, eta baita lortu duten ipuina ulertzea, esperientziaren helburu nagusia izan dena, alegia.

## 62. Ipuina aitzakia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 30.or.*

Ikasle bakoitzak bere liburuan agertzen diren galderak hausnartu eta erantzunak idatziko ditu. Ondoren, talde handian, egindako hausnarketaren inguruan elkarrizketa bultzatuko dugu hainbat erantzun entzuteko aukera izanik.

## 63. Olerkia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 72.or.*

On Joxepen xelebrequeriak ikusi ondoren, xelebrequeri gehiago irakurtzeko aukera izango dute ikasleek. Joxan Ormazabalaren olerkia bakarka irakurri ostean, xelebrequeriak asmatzera jolastu dezakegu edo nahi izanez gero, olerkian agertzen direnen artean gehien gustatu zaiena folio batean kopiatu eta horren irudia egin dezakete.

## 64. Komikia: Gaietak jan eta etxera!

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 31.or.*

Komikia irakurtzen hasi orduko elkarrizketa bultzatuko dugu, gogoratu Tough-en hizkuntz-funtzio batzuk martxan ditzakezuela:

*-Izenburua irakurrita, zer ematen digu aditzera?*

*-Oraingoan ez dute bidaiatu baina hainbat lan burutu dituzte, ekar ditzagun gogora!*

*-...*

Bakarka irakurtzeko aukera izan ondoren berriro ere irakurritakoari buruz hitz egingo dugu:

*- Maddalenek parranda eta lana egin dutela dio, posible al da biak batera egitea?*

*Zuek egiten al dituzue? Zein duzue gogokoak? Zergatik?*

*- Zer da museorako ekarri duten pieza? Dagoeneko zenbat dituzte? Eta zeintzuk dira? Zein uste duzue izan daitekela hurrengoak?*

*- Beteko ote zuen mekanikariak bere hitza? Konponduta egongo ote da makina?*

*- Irabigailua zertarako erabiltzen da? Inoiz erabili izan duzue? Gustatuko litzaizueke erabiltzea?*

*- Irakur dezagun bada, errezeta!*

## 65. Gaieten errezeta

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 73.or.*

Lehenengo bakarka eta gero talde handian, gaietak egiteko errezeta irakurriko dugu, osagaiak zeintzuk diren eta gaietak nola egin behar diren argi geratu dadin. Ikasleak etxean, gurasoekin batera gaietak egitera animatuko ditugu, eta baita bakoitzak egindako gaietaren bat gelara ekartzera ere, honela, gaiaren bukaera eta berri baten hasiera ospatu dezakegu gaietak jaten. Aukera izanez gero, ikastetxean bertan egitea ere esperientzia polita izan daiteke.

## **66. Sintesia**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 32.or.*

Unitatean zehar landutako produktu baten ekoizpenean ematen diren urratsek osatzen duten ibilbide ziklikoa barneratuta egongo delakoan, irudien laguntzaz ikasleek, desordenean agertzen zaizkien faseen izenak idatzi beharko dituzte dagozkien lekuan. Bigarren jardueran, hausnarketa egin ondoren, birziklapenari buruz duten iritzia idatziz adierazi beharko dute.